



BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA
AITA LARROKA 1

Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde, 1905
Deskribapena

San Ignazio elizarantz, bi alboetan kale arkuteriaduna berekin ekarriko lukeen araudiaren testigantza. Garai hartan, Jose de Goicoa udal arkitektoa zen eta, adierazitako eliza eraikitzen ari zen bitartean, estilo neogotikoko ereduazko fatxada bat planteatu zuen 1895ean. Fatxada horretara egokitu behar zuen Aita Larroka kalearen aurrean egongo zen eraikuntza orok. Lehen etxea, Mirakruz kaltearekin izkinan, Jose Clemente de Osinaldek proiektatu zuen 1905ean, zazpi metro eta erdiko altuerako, lau metroko sakonerako eta bi metro eta erdi inguruko pasabideko arkupeaz. Jatorriz, behe oina eta bost goi solairu zituen (azkena mantsardapean), maila bakoitzeko etxebizitza bakarraz eta mehelinari atxikitako eskaileraz. Egun, behe oina eta sei altuera ditu, bosgarrena mantsardan eta seigarrena atzeraemanda jasoa (1929koa). Arkuteria, berriz, behe oineko eta tarteko oineko aprobetxamenduaz okupatu da.

Babes erregimena
1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baioen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: seigarren oina.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandu elementuak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: bosgarren oineko mantsarda babestuko da.

D.- Nahitaezko lehengoratzeak:

* Behe oineko harlandua leheneratzea eta, zaharkituta egonez gero, haren ordeztu, harlandu horrekin lotutako irudiari eustea ziurtatuko duten beste soluzio batzuk ezartzea (xafiak, etab.).

* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.